



2020KO ABENDUAREN 3AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Telemakikoki egin du bilera 2020ko abenduaren 3an, 18:00tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, OLATZ PEON ORMAZABAL Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%031,50): Olatz Peon Ormazabal
ALEGIAKO UDALA (%2,78): M^a Aranzazu Irazusta Etxeberria
ALKIZAKO UDALA (%0,60): Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez
ANDOAINGO UDALA (%23,58): Mainer Lainez Lazcoz
ANOETAKO UDALA (%3,28): Pedro M^a Estanga Lasa
ASTEASUKO UDALA (%2,47): Aitor Usandizaga Izagirre
BERASTEGIKO UDALA (%1,74): Amaia Azkue Eizagirre
ELDUAINGO UDALA (% 0,39): Oihana Amundarain Zubillaga
HERNIALDEKO UDALA (%0,50): Luis Arana Goya
IBARRAKO UDALA (%6,73): Igor Zapirain
LARRAULGO UDALA (%0,41): Jesus M^a Tejada Cantero
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Arkaitz Esnaola Huici
LIZARTZAKO UDALA (%0,97): Iñaki Azpiroz Beldarrain
OREXAKO UDALA (%0,20): Gurutze Etxezabal Iturrioz
VILLABONAKO UDALA (%9,49): Beatriz Unzue Esnaola

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,52): Jon Zubizarreta Aldaia
ALBIZTURKO UDALA (%0,50): Iñaki Orbegozo Arrospide
BALIARRAINGO UDALA (%0,22): Andoni Olano Manzano
BELAUNTZAKO UDALA (%0,39): Silvia Moneo Cid
BERROBIKO UDALA (%0,97): David de Miguel Les
ORENDAINGO UDALA (0,35%): Eneritz Olano Iriarte

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2020ko urriaren 8ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20200930.036tik LE20201103.043ra.**
- 3. 2021 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua, platanilla organikoa eta lanpostuen zerrenda hasiera batez onartzeko proposamena.**

4. GHKk altako garraioaren inguruan proposaturiko konpentsazio ekonomikoen aplikagarritasun tenporalaren inguruko txosten juridikoaren berri ematea.

5. GHK eta Tolosaldeko Mankomunitatearen arteko Lankidetz hitzarmena onartzeko proposamena, transferentzia estaziorik ez duten eskualdeetan hondakinen transferentzia puntuak zehazten dituen erabakia eta konpentsazio proposamena onartzeko.

6. Galde-erreguak.

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko Ingurumen arduradunaren aurrean.

Lehendakariak Aduna, Altzo, Amezketa, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura eta Zizurkilgo ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutueta 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ADUNAKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

ALTZOKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

AMEZKETAKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

IKAZTEGIETAKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

IRURAKO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

ZIZURKILGO UDALA: Ordezkaria, Gurutze Etxezabal Iturrioz

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2020ko urriaren 8ko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenaren berri ematea: LE20200930.036tik LE20201103.043ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakia.

LE20200930.036

LE20201007.037

LE20201007.038

LE20201009.039

LE20201014.040
LE20201016.041
LE20201029.042
LE20201103.043

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3.- 2021 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda hasiera batez onartzeko proposamena.

Idazkari kontu hartzaileak azaltzen du 2021 ekitaldirako aurrekontu proposamenaren espedientea igorri zaiela, bertan jasota daudelarik Idazkaritza kontu hartzailetzako aurrekontua egiteko irizpideei buruzko txostena, ekonomia eta finantza txostena, aurrekontuaren egonkortasun eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzko txostenak. Excela ere bidali zaie eta horien azalpenak ingurumen arloko arduradunak emango dizkiela.

Ingurumen arloko teknikariak azaldu die bidalitako dokumentazioan, zehazki excel orrian, aurrekontuaren egitura bereizten dela gastu estrukturetan eta bilketa gastuetan.

Gastu estrukturetalak biztanleen arabera banatzen direnak dira, horren barruan daude pertsonalaren kapitulu osoa eta bigarren kapituloko zenbait gastu. 526.700 euroko gastua suposatzen dute, iazko aurrekontuarekin alderatuta % 12ko jaxiera izatea aurreikusten da.

Bilketa gastuei dagokionez, bi zatitan banatzen dira, ekarpen finkoa garbigunetako gastua zeina biztanleen arabera banatzen den eta ekarpen finkoa bilketa sistemaren arabera banatzen dena.

Tratamentu gastuak ekarpen finkoa biztanleen arabera banatuko dena da Garbigunetan jasotakoaren tratamendua eta ekarpen aldakorra bilketa sistemaren arabera, jasotako kopuruaren arabera banatzen dena.

Aurrekontua orokorrean 2020 ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta % 3,26 igotzen da.

Aurrekontu orokorraren kopurua da 6.301.430,89 eurokoa. Igoerak tratamendu gastuarekin dauka zerikusia, tratamendua % 15 igo da. Mutiloako zaborteziaren itxierak tratamendu gastuan aldaketa handia ekarri zuelako.

Sarrerei dagokionez Mankomunitateak bi sarrera mota ditu Udalen ekarpenak IV. kapitulua 5.413.070,89 euro eta hondakinen tratamenduen ondorioz saltzen diren hondakinen salmentaren sarrerak, III. kapitulua 887.960 euro. Azken kapitulu honetan, beste zenbait kontzeptu ere sartzen dira, baino momentuz garrantzi gutxiak dira kopuruari so eginez.

Udal bakoitzaren ekarpena kalkulatzeko irizpideak biztanle kopurua, bilketa sistema eta tratamendua dira. Ondoren, Udalen ekarpenak, bere udalerrian bildutako hondakinen

salmentaren kopuruarekin gutxitzen dira eta Garbigunetan biltzen diran hondakinen salmentaren kopuruarekin. Azken hauek, udaletako biztanleen arabera banatzen dira.

Landa eremuko udalerrriak ez dute izan orain arte sortzen zuten pisuaren arabera informazio zehatza baino 2021etik aurrera espero da herri txikien bilketa kopurua zehaztu ahal izatea. Herri bakoitzak jakingo du desglosatuta bildutako hondakinen pisua eta tratamenduaren kopuruak. Industriegunetan zenbat eta ze hondakinak biltzen diren eta ze maiztasunarekin jakingo dugu eta horrekin informazioa sailkatuta eta zehaztuta bidaliko da.

Bozketa egin dute eta bertan dauden kide guztien aldeko botoarekin erabakitzen dute:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea 2021 ekitaldiko aurrekontu orokorrari, plantilla organikoari eta lanpostuen zerrendari.

Laburtuta kapituloka 2021 ekitaldiko aurrekontu orokorra, honakoa da:

SARRERAK	
ERAGIKETA ARRUNTAK	
Kap. Zuzeneko Zergak	0,00
Kap. Zeharkako Zergak	0,00
Kap. Tasak eta bestelako zergak	887.960,00
Kap. Transferentzi arruntak	5.413.070,89
Kap. Ondare Sarrerak	400,00
KAPITAL-ERAGIKETAK	
Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
Kap. Kapital Transferentziak	0,00
Kap. Finantza aktiboak	0,00
Kap. Finantza Pasiboak	0,00
GUZTIRA	6.301.430,89
GASTUAK	
7. ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	211.850,00
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	6.081.780,89
3. Kap. Finantza gastuak	6.000,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	0,00

8. KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	1.800,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	0,00
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00
GUZTIRA	6.301.430,89

**2020IEKITALDIA TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO
PLANTILLA**

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>Lanp. kop.</i>	<i>Taldea</i>	<i>Egoera</i>	<i>Oharra</i>
IZAERA NAZIONALEKO GAIKUNTZAKO ESKALA				
Idazkaritzako Azpieskala				
Idazkaritza- Kontuhartzaitza	1	A1	J	Dedikazioa % 85

PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>Lanp. kop.</i>	<i>Taldea</i>	<i>Egoera</i>
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA			
Administraria	1	C1	Beteta
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA			
Ingurumeneko teknikaria	1	A1	Beteta
Ofiziala	1	C2	Beteta

LANPOSTUEN ZERRENDA

ZENBAKI A NÚMERO	IZENA Denominación	IZAERA Tipo	ESKALA- AZPIESK ALA ESCALA- SUBESCA ALA	HORNITZE KO SISTEMA SISTEMA DE PROVISIÓN	DEDIK AZIOA DEDICACIÓN	SAILKA PEN TALDE A GRUPO	DESTINO OSAGAR RIA COMPLE MENTO DE DESTINO	BERARIAZK O DESTINOA COMPLEME NTO ESPECÍFICO	TITULA ZIOA TITULA CIÓN	HIZKU NTZA ESKAKI ZUNA PERFIL LINGUI STICO	DERRIGO RTASUN DATA FECHA PRECEPTI VIDAD	OHAR RAK OBSE RVACI ONES	BESTE BATZU K OTROS
1	Idazkari kontu hartzailea Secretaria Interventora	Funtzio arioa Funcion ario	Habilitaz io nazio nal a/Idazka ritza kontu hartzaile tza Habilita ción nacio nal /Secretar ia	Lehiaketa Concurso	85%	A1	25	30.784,36 (% 20ko osagarria barne) Inkluido 20% dedicación complemen taria	Lizentzi atua/ Gradua Licenci ada/ Grado	4	2019/12/ 18	Dedik azio berezi a % 20 Dedic ación especi al	Erabat eko Baliag arritas una Modal itatea Modal idad dedica ción exclusi va

			interven ción										
1	Ingurugiro arloko arduraduna Responsable area medioambiental	Lan kontratua Contrato laboral	Adminis- trazio berezia Adminis- tración especial	Oposaketa lehiaketa Concurso oposición	100%	A1	23	28.579,5 (% 10 barne/inclui- do)	Lizentzi- atua/G radua Licenci- adaaGr ado	3	04/06/20 01	Dedik- azio berezi- a % 10 Dedic- ación especi- al	
1	Administraria Administrativa	Lan kontratua Contrato laboral	Adminis- trazio orokorr- a Adminis- tración especial	Oposaketa lehiaketa Concurso oposición	85,70%	C1	19	14.595,59	Batxiler- ra/ teknika- ria Bachill- er/ Técnico	3	04/06/20 02		
1	Garbiguneko ofiziala Oficial del Garbigune	Lan kontratua Contrato laboral	Adminis- trazio berezia Adminis- tración especial	Oposaketa lehiaketa Concurso oposición	50%	C2	16	15.985,65	Bigarre- n hezkun- tzan gradua- tua Gradua- do educaci- ón secund- aria	2	04/06/20 02	Gida baime- na Permis- o de condu- cir	

BIGARRENA.- Erakusketa publikoan jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz 15 lanegunez interesatuek aztertu eta egoki irizten dituzten alegazio zein ohararazpenak aurkeztu ditzaten. Erakusketa publikoko epealdian ez bada erreklamaziorik aurkezten behin betikoz onartutzat joko da beste erabakirik hartu beharrik gabe.

4.- GHKk altako garraioaren inguruan proposaturiko konpentsazio ekonomikoen aplikagarritasun tenporalaren inguruko txosten juridikoaren berri ematea.

Idazkari kontu hartzaileak azaldu die Ekain abokatuak taldeak egin zuela GHKk altako garraioaren inguruan proposaturiko konpentsazio ekonomikoen hitzarmenaren aplikagarritasun tenporalaren inguruko txostena. Honen ondorioak dira konpentsazioak ordaintzea baliatzen duen araua 2019ko arau forala dela eta bertan jasotzen denaren arabera, arau forala onartu eta publikatzen den hurrengo egunetik aurrera dela aplikagarria, hortaz ezin direla atzeraeraginkortasunez eskatu aipatu konpentsazioak.

Lehendakariak hitza hartu du azaltzeko txosten juridikoa eskatu zela GHKri Tolosaldeak historikoki izan duen desabantailagatik erreklamatzeko oinarri juridikorik ba ote zegoen ezagutzeko, eta juridikoki ez dagoenez, orain bide politikoa jorratu beharko dela. GHKko Lehendakariarekin bilera hitzartuta daukala azaldu du.

5.- GHK eta Tolosaldeko Mankomunitatearen arteko Lankidetzaren hitzarmena onartzeko proposamena, transferentzia estaziorik ez duten eskualdeetan hondakinen transferentzia puntuak zehazten dituen erabakia eta konpentsazio proposamena onartzeko.

Idazkari kontu hartzaileak azaltzen du Hitzarmenaren edukia, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren helburu nagusia da hondakinen altako kudeaketa egitea. Xede hori gauzatzeko jardueren artean dago, beste batzuen artean, transferentzia estazioetatik

amaierako tratamendurako plantetara edo, hala badagokio, zabortegira, hondakinak garraiatzea.

Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala 2019-2030 onartu zen martxoaren 20ko 6/2019 Foru Arauaren bitartez, aurreko sisteman baja egoeratik alta egoerara igarotzea Transferentzia Estazioetan ematen zen, baino arau berriaren bitartez, kontutan izanik transferentzia zentroak Sasietako mankomunitateak eta Debabarrenak bakarrik dituztela, beste mankomunitateen artean sor daitezken desberdintasunak ekiditeko helburuarekin, bajatik altara igarotzea puntu geografiko birtual batean egin behar da, eta puntu hori Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak zehaztuko du. Tolosaldeko mankomunitatearen kasurako, puntu hori Tolosan zehaztu du.

Transferentzia Puntu horietan Hiri hondakinen transferentzia egina dagoela ulertuko da, eta beraz, puntu horietatik abiatuz, altako garraioa kontsideratuko da eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari egokituko zaio zerbitzua emateko eskumena.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari egokitzen zaion zerbitzuaren kostu horrek bakarra eta berdina izango da Transferentzia estaziorik ez duten mankomunitateentzat, eta ezarpen orokorreko irizpide bakarren arabera zehaztuko da, unitate prezioetan zehaztuko direnak.

Mankomunitateko ingurumen arloko arduradunak konpentsazioa kalkulatzeko formularen nondik norakoak azaltzen ditu: Konpentsazio eskubide hori kalkulatzeko oinarria da garraiatu beharreko hondakin tonak, deskarga puntura dagoen distantzia, garraio denbora eta erregai kontsumoa. Autopista peajeak barne daude, erabiltzen diren kasuetarako.

Hauek dira irizpideak:

Gidariaren prezioa/ordua 30 euro/ordua.

Bidai bakoitzean garraiatutako batz besteko zama: 5 Tn/bidaia (2019an 6t/bidaia Txingudiren kasuan, gaitasun handiagoko bodie eta trasliftsal erabiltzeagatik).

Erregai kontsumoa, 35 litro 100 km*1 euro/litro=35€/100km

%5 kamioaren mantentze gastuak.

%5 ekipoaren narriadura gastuak.

Lekualdatzea langile bakar batekin konpentsatzen da.

2020tik aurrera, konpentsazioa kalkulatzeko beharrezkoak diren irizpideen kopurua luzapen bakoitzerako eguneratuko da, honako hauen arabera:

Kostua Guztira (€(Tn*km)) = Langileak % 60+Erregaiak % 30 +%5eko narriadura + %5 Mantentzea.7

Prezioa berrikusteko Formula = %60 * Langile indizea + % 30 * Erregai indizea + %10 * Mantentze eta Birjarpen indizea.

Idazkari kontu hartzaileak jarraitzen du hitzarmenaren edukia azaltzen, Hitzarmena sinatzen duten aldean betebeharrak honako hauek ezarri dira:

Mankomunitateari dagokio esleitutako transferentzia puntutik Kontsortzioak ezarritako tratamendu zentroraino edo transferentzia estazioraino hondakinak garraiatzea.

Mankomunitateak zerbitzu hau ematearen erantzukizun osoa dauka.

Kontsortzioari dagokio Batzarrak marko akordioaren bidez kaltetutako Erakunde guztiei ezarri ahal zaizkien irizpide komunak arabera adostutako konpentsazioak ordaintzea, zerbitzuaren kostuetako desberdintasunak zuzentzeko asmoz.

Mankomunitateak zerbitzuko edozein gorabehera jakinarazi beharko du, eta emandako zerbitzua justifikatzeko Kontsortzioak errekeritutako dokumentazioa eman, dagozkion konpentsazioak kalkulatzeko oinarritzeko.

Hitzarmenaren indarraldia gehienez bi urteko iraupena izango du, beste bi urtez luzatu ahalko dena bi aldeek hala adostuta, aldeetako batek salatzen badu salbu, hilabete aurretik abisatu beharko duela.

Hitzarmenaren sinatzaileen ordezkariekin Jarraipen eta Kontrol Batzorde Orokorra eratuko da hitzarmenaren betetzearen ikuskaritza eta kontrola egiteko eta hitzarmenaren gauzatzean sor daitezkeen interpretazio arazoak konpontzeko helburuarekin.

Ingurugiro arloko arduradunak azpimarratu du Jarraipen eta Kontrol Batzorde Orokor honen garrantzia, datorren urtetan baloratu ahal izango dutelako hitzarmenaren balioa benetan sortzen diren gastuen konpentsazioarekiko.

Hitzarmenaren edukia azaldu ondoren Orexako ordezkariak hitza hartu du esateko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzian EH Bilduk hitzarmen honen edukari ezezkoa bozkatu ziola. Eskualdean proposatutako gastua behar bezala ez da konpentsatzen eta ez bakarrik Tolosaldeko Mankomunitateak transferentzia estaziorik ez edukitzean hasieratik ordaindu behar izan duen altako gastuagatik, baizik eta 2016an Spora ingurumen zerbitzuak enpresak egindako beste diagnostiko batean 263.517 eurotan kalkulatu zuelako altako garraio horren gastuaren konpentsazio gisa eta ondorioz konpentsatu beharreko kopurua. 103.000 eurotan baloratu dute eta hori ogi apurrak direla esan du. Gaineratu du ezingo dutela epaitegietara jo ez daukatelako behar adina gehiengoa horretarako eta ezezkoa bozkatu ezkerreko dirua galdu besterik ez dela egingo gaineratu du, horregatik hitzarmena onartuko dute baino nahi du aktan jasota gelditzea ez daudela hitzarmenaren edukiarekin eta konpentsatuko den kopuruarekin eta epealdiarekin batere ados, ez delako batere justua. Azkenik, esan du politikoki lantzeko ere beranduegi dabilzala, ez zegoela urte amaieraraino itxoin beharrik horretan hasteko.

Mankomunitateko Lehendakariak hitza hartu du esateko Tolosaldeko Mankomunitateak historikoki izan duela desabantaila bat transferentzia estazioa ez edukitzean, altako garraio hori asumitu behar izan duelako, ostiralerako bilera eskatuta dauka GHKko Lehendakariarekin gaia aztertzeko. Gaineratu du, 2017an egindako konpentsatzeko eskaera horri ez zaiola jarraipenik egin eta agian autokritika pixka bat egitea ere ez legokela gaizki.



Hauek guztiak kontutan izanik eta Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen 23 artikulua arabera, Batzarrari dagokio beste administrazio publikoekin lankidetzak hitzarmenak baimendu eta onartzea.

Bozketa egiten dute Batzarkideek eta aho batez honako hau:

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen arteko hitzarmena onartzea, hondakinak garraiatzeko zerbitzuak agintzeko hondakinen transferentzia puntuak zehaztearekin lotuta.

BIGARRENA.- Lehendakaria gaitzea, erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu eta sinatzeko.

6. Galde-erreguak.

Ez daude.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko seiak eta berrogei minutu direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA